


**LUKENE**  
**SUGEGORRI TXIRENE**





**Neguko egun batean**  
**4**





**Gaur hiria zuri-zuri esnatu da, elurrez estalita.  
Zuhaitzak zuri daude, automobilak eta etxeak ere bai.  
Farolak, kaleak eta inguruko mendiak elurrez zurituta agertu dira.**



**Umeak oso pozik daude, elurra asko gustatzen zaie-eta.  
Elurra dagoenean, elur-panpinak egiten dituzte,  
eta elurrezko bolekin borrokan aritzen dira.  
Lukeneri, ordea, elurra ez zaio batere gustatzen,  
oso hotza delako eta lepokoa, berokia  
eta txapela jantzi behar dituelako.**



**Gaur, Lukene elur-panpina bat egiten ari da.  
Elurrezko bi bola handi dauzka:  
bat, gorputza egiteko, eta bestea, txikiagoa, burua egiteko.  
Sudurrerako, azenario bat du; begietarako, bi txanpon,  
eta ahorako, hosto txiki bat.**



**Orain botoiak, txanoa, lepoko bat eta orratza behar ditu.  
Begira elur-panpina honi! Oso ondo!  
Orain, izena jarri behar diote. Zer izen du?  
Edurne. Zer izen polita den!**

# NEGUKO EGUN BATEAN



## 1. Erantzun galdera hauei:

• Zer koloretakoa da elurra?

• Elurra egiten duenean, nolako eguraldia dago?

• Zer koloretakoak dira zuhaitzak, etxeak eta automobilak?

• Zer gustatzen zaie umeei?

• Zergatik?

• Lukeneri gustatzen al zaio elurra?

• Zergatik?

• Zer egiten ari da Lukene gaur?

• Gorputzeko zer atal da:


Azenarioa=  
Txanponak=  
Hostoa=

• Zer gehiago behar duzu elur-panpina bat egiteko?

• Zein izen du panpinak?



**2. Marraztu elur-panpina bat:**



**3. Deskribatu lehenengo orrialdeko irudia:**

• Non dago Lukene?


• Zenbat etxe ikusten duzu?

• Nolakoak dira automobilak?

• Zer eguraldi egiten du?



**4. Margotu zure sugerria**



## 5. Egin mugikari bat

- Margotu elur-panpina baten gorputz-atalak.
- Koloreztatu kontu handiz.
- Paretarako txintxetak erabiliz, lotu atalak



## 6. Erantzun bigarren orrialdeari buruzko galderei:

• Zer dago irudian?

• Nola daude umeak?

• Zer egiten ari dira?

• Non dago elur-panpina?

• Zer arropa darama Lukenek?

• Eta Maialenek?



## 7. Aurkitu ipuinean agertzen diren arropak:

B	U	F	A	N	D	A	O	S	O	O
P	R	A	K	A	K	O	K	N	D	O
E	A	K	A	R	O	N	A	G	I	N
J	E	R	T	S	E	A	T	D	U	Z
U	Z	U	R	E	L	X	O	A	N	A
Z	O	R	I	O	N	T	B	A	K	!
E	S	K	U	L	A	R	R	U	A	K

1-

2-

3-

4-

5-

6-

7-





8. Irakurri letra-zopan agertzen den mezu sekretua:



9. Margotu zeure burua



10. Zer jantzi duzu zuk, gaur?



11. Erantzun hirugarren orrialdeari buruzko galderei:

• Zer darama Lukenek?

• Zer koloretakoa du lepokoa?

• Eta txanoa?

• Euria edo elurra egiten ari da?



• Zertarako dira botoiak?


• Zertarako da azenarioa?

• Zertarako da elurrezko bola txikia?

• Zertarako da elurrezko bola handia?



## 12. Egin elur-panpina eta margotu



## 13. Idatzi dagokion lekuan elur-panpinaren gorputz-atal hauek:

lepoa, gorputza, sudurra, begiak eta ahoa.

14. Elkartu hitzak. Zer koloretakoa da?

<b>TXANOA</b>	<b>MARROIA</b>
<b>SUDURRA</b>	<b>URDINA</b>
<b>BOTOIAK</b>	<b>ORIA</b>
<b>BUFANDA</b>	<b>GORRIA</b>
<b>BEGIAK</b>	<b>BERDEA</b>
<b>AHOA</b>	<b>LARANJA</b>



# Kontrol-orria

## NEGUKO EGUN BATEAN

### 1. Erantzun galdera hauei:

- Zer koloretakoa da elurra?  
**Elurra zuria da.**
- Elurra egiten duenean, nolako eguraldia dago?  
**Elurra egiten duenean, hotz egiten du.**
- Zer koloretakoak dira zuhaitzak, etxeak eta automobilak?  
**Zuhaitzak, etxeak eta automobilak zuriak dira.**
- Zer gustatzen zaie umeei?  
**Umeei elurra asko gustatzen zaie.**
- Zergatik?  
**Elurrarekin jolas dezaketelako.**
- Lukeneri gustatzen al zaio elurra?  
**Ez, Lukeneri elurra ez zaio gustatzen.**
- Zergatik?  
**Hotz handia egiten duelako.**
- Zer egiten ari da Lukene gaur?  
**Lukene elur-panpina egiten ari da.**
- Gorputzeko zer atal da:  
Azenarioa=**Sudurra**  
Txanponak=**Begiak**  
Hostoa=**Ahoa**
- Zer gehiago behar duzu elur-panpina bat egiteko?  
**Elur-panpina bat egiteko txano bat, lepoko bat eta orratz bat behar ditut.**
- Zein izen du panpinak?  
**Panpinak Edurne du izena.**




2. Marraztu elur-panpina bat:



3. Deskribatu lehenengo orrialdeko irudia:

- Non dago Lukene?  
**Lukene ez dago**
- Zenbat etxe ikusten duzu?  
**Etxe pilo bat ikusten dut**
- Nolakoak dira automobilak?  
**Automobilak zuri zuriak daude**
- Zer eguraldi egiten du?  
**Elurra egiten du**

4. Margotu zure sugegorria:



## 5. Egin mugikari bat

- Margotu elur-panpina baten gorputz-atalak.
- Koloreztatu kontu handiz.
- Paretarako txintxetak erabiliz, lotu atalak



## 6. Erantzun bigarren orrialdeari buruzko galderei:

- Zer dago irudian?  
**Ume asko daude eta Lukene dago begiratzen.**
- Nola daude umeak?  
**Umeak jolasten ari dira, arropa lodia jantzita.**
- Zer egiten ari dira?  
**Elurrezko bolekin jolasten ari dira.**
- Non dago elur-panpina?  
**Ez dago elur-panpinarik.**
- Zer arropa darama Lukenek?  
**Lukenek jertse lodia, txanoa eta lepokoa daramatza.**
- Eta Maialenek?  
**Maialenek jertse berdea, praka lodiak eta botak daramatza.**



## 7. Aurkitu ipuinean agertzen diren arropak:

B	U	F	A	N	D	A	O	S	O	O
P	R	A	K	A	K	O	K	N	D	O
E	A	K	A	R	O	N	A	G	I	N
J	E	R	T	S	E	A	T	D	U	Z
U	Z	U	R	E	L	X	O	A	N	A
Z	O	R	I	O	N	T	B	A	K	J
E	S	K	U	L	A	R	R	U	A	K

- Bufanda
- Prakak
- Anoraka
- Jertsea
- Eskularruak
- Txanoa
- Botak




8. Irakurri letra-zopan agertzen den mezu sekretua:

Oso ondo egin duzu zure lana. Zorionak!



9. Margotu zeure burua:



10. Zer jantzi duzu zuk, gaur?

Gaur, praka/gona/soineko zuria jantzi dut  
alkandora/brusa gorriarekin.  
Zapata gorriak...



11. Erantzun hirugarren orrialdeari buruzko galderi:

- Zer darama Lukenek?  
Lukenek txanoa eta lepokoa daramatza.
- Zer koloretakoa du lepokoa?  
Urdina du lepokoa.
- Eta txanoa?  
Arrosa du txanoa.
- Euria edo elurra egiten ari da?  
Elurra egiten ari da.



- Zertarako dira botoiak?

**Botoiak elur-panpinaren begiak egiteko dira.**

- Zertarako da azenarioa?

**Azenarioa sudurra egiteko da.**

- Zertarako da elurrezko bola txikia?

**Elurrezko bola txikia burua egiteko da.**

- Zertarako da elurrezko bola handia?

**Gorputza egiteko da.**



## 12. Egin elur-panpina eta margotu:



## 13. Idatzi dagokion lekuan elur-panpinaren gorputz-atal hauek:

**lepoa, gorputza, sudurra, begiak eta ahoa.**





14. Elkartu hitzak. Zer koloretakoa da?

